



Azken estatistika ofizialen arabera (HCR, OIM, UNICEF), 2016ko lehen sei hiletan **2.856** etorkin ito dira Mediterraneoan*. Horietatik %32 (**913**) haurrak, %19 (**542**) emakumezkoak eta %49 (**1.399**) gizonezkoak ziren.

Heriotza horien albisteak irakurtzen ditugu hildako horiek anonimoak, izengabeak, kopuru huts bat, izango balira bezala; **2.856**, zenbaki bat. Horregatik beragatik, zenbatu egingo ditugu, banan-banan.

Ondo dakit «hildakoak zenbatzea ez dela aski, ekintzak behar direla», OIMeko zuzendari W. Lacy Swiningek esan zuen bezala, baina, era berean, badakit ekin aurretik jakin egin behar dela eta jakiteko informazioak zirkulatu egin behar duela.

Gaurko egunean, aukera dugu berriz jendaurrean egiteko, nahiz eta ezingo ditugun izendatu, nahiz eta haietaz dakigun bakarra sufritzen, larri eta desesperatuta ito zirela den, Europara iristeko *Mare Nostrum* edo gure itsaso «zoragarria» zeharkatzean. Donostian Europako kultura ospatzen ari garen honetan -ez dezagun ahaztu etorkin ugarik aberastu eta ondu dutela-, ezin diogu ez ikusi egin drama horri, Europaren drama ere badelako.

Beharbada, letania triste hau errezitatuta gai honek gehiago kezkatuko gaitu; beharbada, gure mobilizazio-gaitasuna handitu egingo da Europak emigrazioaren aurka ezarritako politikak aldatzea lortzeko. Bizirik ateratzen direnek ere behar dute gure laguntza.

*2014. urtean 3.500 pertsona hil ziren Mediterraneoan itota, eta 2015ean, 3.771.

